

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioak berdintasunezko politikak bultzatuko dituzte toki-mailan

Aurtengo hitzarmenaren bidez, herririk txikienetan berdintasunaren alorrean ematen den aholkularitza sendotzen da

Ostirala, 2019.eko martxoak 1

Mertxe Leranozek Navarra para la Igualdad / Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren (INAI /NABI) zuzendari-gerenteak eta Pablo Azconak Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioko lehendakariak lankidetzarako hitzarmen bat sinatu dute berdintasunezko politikak sustatzeko toki-mailan.

Lehen aldiz 2018an sinatutako eta aurtun berritu den hitzarmenaren helburua bi erakundeen arteko lankidetzari jarraipena ematea eta toki-mailan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak sendotzea da.

2018ko Hitzarmenari balorazio positiboa egin eta ondorioak eta hobetzeko eremuak aztertu eta gero, beharrezkotzat jo zen Nafarroako Foru Erkidego osoari estaldura ematea eta berdintasunean aholkularitza bermatzea herri txikienetan ere.

2019ko agirian adostutakoaren arabera, Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioak tokiko erakundeei laguntza teknikoa emango die berdintasunezko politikak sustatzeko, eta, beste jarduera batzuen artean, arlo horretako interesezko jarduerak antolatu, agiriak prestatu eta hedatu eta berdintasun-arloan prestakuntzako jarduerak burutuko dituzte tokiko erakundeen teknikari eta politikarientzat.

Hitzarmenaren bidez, INAI /NABIk 35.000 euroko ekarpena egiteko eta toki-mailan emakumeen eta gizonen artean berdintasunezko politikak sustatzeko Federazioari laguntza teknikoa emateko konpromisoa hartu du. Bestalde, Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioak 10.000 euro jarriko ditu ekintza horiek burutzeko.

Hitzarmena eguneratu eta berritzearekin batera, emakumeen eta gizonen artean berdintasunezko politikak sustatzeko Nafarroako Udalerrri eta Kontzejuen Federazioren eta INAI/NABIren arteko kolaborazioa



Pablo Azcona eta Mertxe Leranoz hitzarmena sinatzen.

egonkortzen da. Harreman hori jada Nafarroako Emakumeen Kontrako Indarkeriaren aurrean Koordinatzeko Erakunde arteko III. Akordioarekin sendotu zen, xede hauek betetze aldera: emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzio eta lanketa integralean koordinazio eta lankidetzaren handiagoa eta hobea lortzea, eta, halaber, Foru Erkidego osoan jarduteko jarraibide homogeenak ezartzea.